

Eusko Jaurlaritzaren jarrera oker larritzat jo du EHNEK

LGPn sindikatuaren iritzia ez dela kontuan hartu salatu du

Erredakzioa / Gasteiz

Urtarrilaren 3an Bruselan aurkeztu beharreko Landa Garapenerako Planaren prestakuntza dela eta atzo Jaurlaritzako

Nekazaritza Sailarekin egindako bilkuran mahaitik altxatu egin zen EHNE sindikatuak, sektorearen iritzia eta beharrak ez direla aintzat hartu eta behin-behineko txostena «iraingarria» dela salatzeke.

EHNE sindikatuak gogor salatu zuen atzo Eusko Jaurlaritzaren eta foru diputazioek Landa Garapenerako Planaren (LGP) prestakuntzan izan duten jokabidea, eta erakundeotako ordezkariekin Lakuan egindako bileran mahaitik altxatzea erabaki zuen, bilera «sasikontsulta» bat izan zela salatzeke.

Sindikatuaren arabera, Jaurlaritzak eta foru aldundiek ez dute inolako borondateirik erakutsi sektorearen parte-hartzea bultzatzeko LGPren prestakuntzan. Hilaren 15ean EHNEk 2000-2006 eperako Landa Garapenerako Plana helarazi zion Jaurlaritzari, eta bi egun geroago Jaurlaritzak prestatzen ari zen plana gogor salatu zuen sindikatuak, sektorearen parte-hartzerik ez zegoelako. Salaketaren ondoren, betiere EHNEko iturrien arabera, Jaurlaritzak zirriborroa helarazi zion sindikatuari.

LGP horrek hurrengo zazpi urteetarako nekazaritzarako laguntza foralen planak baldintzatzen dituzte.

Atzoko bileraren ostean egindako adierazpenetan, planaren zirriborroak baserriaren behar sozialak eta ingurugiroari dagozkion arazoak ez dituela kontuan hartzen salatu zuen nekazarien sindikatuak. «Behin-behineko txosten honetako atal garrantzitsuenek aurrez aurre jotzen dute sindikatuaren iritziarekin. Bi kasutan baino ez du hartzen kontuan



JOSEBA OLALDE

Maite Aristegi

■ ■ ■ «Ezin dugu antzezlan lotsagarri eta antidemokratiko hau babestu. Adarra jotzen ari zaizkigu»

laguntzaren onuraduna baserri profesionala izatea, ordezkate zerbitzuaren kasuan eta ustiategiaren kudeaketarako aholkularitzaren kasuan», azaldu zuen EHNEk, eta bi gai horiek laguntzen diren programen artean pisu gutxien dutenak direla azpimarratu zuen. «Gainontzeko programetan laguntzen onuradunak sek-

toretik at daudenak izango dira, beraien errenta beste sektoretatik dutenak», gaineratu zuen.

«Ez dago denborarik»

Afera honetako arazo larriena, EHNEren ustez, negoziaketa eta elkar ulertze serio baterako denborarik ez dagoela da, epea txikia delako. Hain zuzen, LGP urtarrilaren 3rako aurkeztu behar da Europako Batasunean.

EHNEk gogorarazi du, halaber, Jaurlaritzak behartuta dagoela baserriaren sindikatuaren iritzia kontuan hartzera. EHNEk informazioa eta parte-hartzea eskatzen hilabeteak eman dituela azaldu zuen eta, ondorioz, lotsagarri, mingarri eta iraingarritzat jo zuen Jaurlaritzaren jarrera, batez ere hark txostenean sektoreko solaskideen parte-hartzea egon dela jasotzen duela ikusita.

«Ezin dugu antzezlan lotsagarri eta antidemokratiko hau babestu», esan zuen atzoko bileraren ostean Maite Aristegi EHNE idazkari nagusiak. «Adarra jotzen ari zaizkigu azken hilabeteotan. Nekazaritza Saila gaitasunik gabeko departamendua da, ez du autoritate politikorik ezta sektoreko hizlariekin harremanak izateko asmorik ere».

Jaurlaritzak eta foru aldundiak babesten dituzten alderdiak jotzeko asmoa du orain EHNEk.

laburrean



C. DE PRADA-SAMARRUTI

Olentzero, esne ekoizleen eskariarekin bat. Les Chaumes gasnategia hornitzen duten Iparraldeko esne ekoizleek esnez betetako bi ontzi dohainik eskaini zizkion enpresako zuzendariari. Les Chaumesek esne pinta 6,13 libera ordaindu dezan nahi dute.



JOSEBA OLALDE

Kontzentrazioak El Corte Inglesen aurrean. Gasteizko eta Eibarko El Corte Inglesen aurrean kontzentrazioak egin zituzten atzo hainbat gaztek, Jarraik antolatuz. Kontsumismoaren aurka eta bizi-baldintza duinen alde egin zuten.

■ Kontsumorako Prezioen Indizeak ez du aldaketarik izan iragan azaroan Frantzian

KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAK (KPI) ez zuen aldaketarik izan iragan azaroan Frantzian, Ikerketa Ekonomikoko eta Estatistikako Institutu Nazionalak atzo jakinarazi zuenez. Azken hiruhilekoan (irailtik azarora), inflazioa %0,3 igo zen. Urte arteko inflazioa, berriz, (1998ko azarotik 1999 azarora) %0,9koa izan zen. Egonkortasunaren arazoia produktu fresko, petrolio, produktu manufakturatuetan eta zerbitzuetan datza.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

Olentzero, patrika bero

Ez da G. Garaterena, baina egoki dator atzokorako. Ixek-35ak maximoa ezarri zuen, 11.686,6 puntutan. Gabonetan bada zer ospatua hainbaitentzat, nahiz eta Espainian produkzio industrialaren galdotzea oso nabarmena den jada. Alemanian %0,6an kokatu da urte arteko KPI, bat-egiteaz geroztik izandako maila baxuena. Frantzia,

berriz, %0,9an dago inflazioa.

Paris (+%1,96) eta Frankfurt (+%4,47) majo ospatu zituzten datuok, Dow Jonesen laguntzaz.

Ikazkinak opariak ekarri zizkien Terra (+%3,48) eta Amadeusi (+%13,64, bidai txartelak ordenagailuz erosteko enpresak Parisen ere kotizatuko duela jakinaraztean); ikatza, Repsol (-%2).

Bilboko indizea



Dibisen merkatua

	1 Euro
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	1,0089
Libra Esterlina	0,62650
100 Yen (Japonia)	1,0252

Beste indizeak

	* Eguerdira arte
New York (Dow Jones)*	11.399,33 (+%1,57)
Tokio (Nikkei)	18.461,93 (+%2,11)
Madril (IBEX-35)	11.686,60 (+%0,87)
Paris (CAC-40)	5.731,35 (+%1,96)
Londres (FTSE 100)	6.776,80 (+%0,72)
Frankfurt (DAX-XETRA)	6.782,39 (+%4,46)
Milan (Mibtel)	28.062 (+%1,68)

■ SOGECABLEREN ez-tandaren (+%4,26) azalpena: Telefonica (+%1,15) Frantziako Canal Plusen partaidetza hartzekotan omen dabil. Horrek, plataforma digitalen bateratzea erraztuko omen luke Espainian.

■ BRASILEN sartu da Elf Aquitaine kontrolatzen duen Cepa (+%0,91) petrolio enpresa. 150 milioi dolarretan Deten enpresaren %72 erosi du, eta Petrobras izango du bazkide.